



abegi harrera, errezibimendua	«Etxekoei, egin zioten abegi ederragatik eskerrak emanaz, jaun-goikoari ere eman zizkion...»
adur gaiztoa zoritxarra	«Hona hemen, diruz josirik eta nagusitasunez mukuru egon arren, bere bitzta nozitzea besterik izan ez zen gizonaren adur gaiztoa!»
ahakar errieta, agiraka egitea	«...aitarekin erabat haserretu edo aitaren akarrari ez entzun eginaz, leunkerian hasi Otxandak esan zionez.»
ahultzenago indargabeago, ahulago	«...Beltranek zinez pentsatu baldin bazuen ere aurrenean mairutara joatea, irizpide hau gero eta ahultzenago joan zitzaion Erniopeko hirixka baketsuan.»
aitzina aurrera	«Beltran bakarrik etxerantz abiatu da; urria aitzina samartua doa; hego-haize zakarra erasoka ari da...»
akitu nekatu, unatu	«...hilabete baino lehen sukar gaizto bat nagusitu zitzaion gorputzaz eta zeharo akitua ohean sartu behar izan zuen.»
alena halakoa, neurritz kanpokoa	«Hori al duk hire mendekua koldar alena? Ez ote duk azalik hire txarkeria aurrez aurre eta gizonki egiteko?»
apaingarri edergarria, apaingailua	«...egun berezietarako ohi zuen jantzirik ederrenaz apaindua joan zen. Txano eta galtzak gorri kolorekoak ziren, zilarrezko apaingarriz hornitua.»
apeta guraria, nahia	«Urtebetean Usoaren umezain izana naiz ezkongai nintzelarik, eta honen, bihotz ontasun eta xalotsuna eta haren zitalkeria eta apetak ezagutzeko beta izan dut.»
arroztegi ostatu	«...arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan, eguzkiak aurpegia erretako zaldun bizartsu bat Debako Salegi jaunaren arroztegi sartu zen...»
asaldatu aztoratu, urduritu	«Beltran asaldatu gelditu zen hitz hauek entzutez, zeren emaztea eta alabak Deban zituen artean ez baitzuen herri honetan oinak jartzeko asmorik.»
aurki laster, berehala	«Aurki sendatuko zara eta orduan Alostorrean ezagutu diren ezteirik bikainenak eginen dira zure espez.»
aztal orpoa, ezproia	«—Lasai, gizonak! —erantzun ondoren, aztalari eragin zion Beltranek bere zaldi liraina trostan jarritz...»
baldar traketsa, dorpea	«Azerikeria asko erakutsi arren, otsoa beti otso, eta Belbeltz baldarregi eta kankailuegi zen Otxandaren azerikeriak aplikatzeko.»
baliatu erabili, probetxatu	«...Beltranen onginahia ezin irabazi zuela ikusiz (...) Belbeltzez baliatzea pentsatu zuen senarraren bihotza bere alde iraultzeko Usoa eta haren arteko
behazun kedarra, urberdea	«Orduan nik —jarraitu zuen behazuna zeriola— zortzi egun dorreko ganbaran giltzapeturik egotera kastigatu nuen. Berak egindakoarentzat ez da zigor
beta denbora, astia	«...eta noski, suge narrastaria betarik galdu gabe joan zitzaion andre Otxandari kalean jaso zuen albiste garratzarekin.»
bitsa zeriola adurra jausten zitziola	«—Aski duk! —Ekin zion sututa Beltranek ahotik bitsa zeriola—, seme doilor eskergabea!»
burgoi harroa, handiputza	«Biziera hau, gogaikarri eta gozakaitz ez ezik, makurgarria ere bazen Otxanda bezalako emakume harro, burgoi eta handinahiarentzat.»
destaina erdeinua, gutxiespena	«...haren borondatea irabazi nahiz atseginkor egiten zion diosalari muzin egiten baitzion, edo ikusi ez balu bezala, destaina zeriola, aitzina jarraitu.»
diosala agurtu	«Zezeaga basetxeko galsoro albotik igarotzean, baserritarrak garia ereiteko lurra jorratzen ari ziren. Beltranek, bere zaldia geldiaraziz, arraiki diosala egiten dio
dohakabe errukarria, malerusa	«Honexegatik, aita etxean zenean bakarrik egiten zitzaion iraungarri Alostorrean zerman bizimodu dohakabea.»
doilor zitla, lotsagabea	«Usoarena zela, eta herriko gizonezkoak eta andrezkoak doilorrenak eta marmarlo zaleenak diruz igurtzirik (...) halakoxeko iraina bazterrik bazter
doilorkeria zitalkaeria, koldarkeria	«Halaxe, bada, Milia, Antxa eta Belbeltzen bihotzak, beren amaren doilorkerian bitartez, Usoaganako gorrotoz jantzi ziren...»



duin nahikoa zuretzat	«—Ez naiz zure duin, Usoa...»
dunbotsak harrabotsu, zaratatsuak	«Alostarrak eta Muñotarrak ezkontza tratutan hasi bezain laster, gerla baten dunbotsak eztei asmoak hankaz gora bota zituen.»
ebatsi lapurtu, ostu	«Berehalakoan, morroiren edo miraberen batek ebatsiko zuela pentsatu genuen, baina, bazterrak miatzen hasita, Usoaren logelako kaxoi batean agertu zen...»
eden pozoia	«"Ipiola" bertsolariaren mihi edentsuak ez zuen jarraitu ahal izan bere zorna kiratsaz entzuleen belarriak pozoitzen.»
elezahar kontu-zaharra	«Bera aritzen zitzaion morroi, berak egiten zion aldia igarokor, eresi zaharrak kantatuz, Euskal Herriko elezahar era gerlako gertakariak kontatuz...»
eralgi gastatu, xahutu	«Halaxe, bada, Beltran jaunak ez zituen hainbesteko dirutzak eralgiko bere haurraren bataio egunerako prestaerak egiten...»
eresi hileta-kantua	«Beltranen ahaide txipiak hil berriari eresiak kantatzen ari zitzaizkiola, sartu zen Usoa bere aitaren zerraldoa zetzan ezkaratz zabalean.»
erraigabe bihozgabea, gupidagabea	«Jolasean edo elkarrekin zebiltzala izaten zituzten haserre eta sesio guztien erru Usoari egiten zioten, ugazama erraigabeak zorrotz kastiga zezan.»
errukitu kupida	«Jaun Beltran, odolez beroa, sutsua eta oldartsua izan arren, bihozbera, errukiorra, eskuzabala eta, batez ere, jaungoikoaren beldurpean hazitako gizona
erruzka ugari, oparo	«Esamesak erruzka zebiltzan Alostorreari buruz.»
etzango ohantzea, etzalekua	«—Noski, baina jauregitarren etzangoak lehendabiziko bizitzan daude eta ez bigarreanean...»
ezkaratze sukaldea, sutea	«Arratsaldeko bostak inguruan iritsi zen gaztelura eta emaztea eta bi alabak emean idoro zituen iruten ezkaratzeko leihorik ederrenaren aldamenean...»
gezala kresala, gazitasuna	«...eramango zaitut susper zaitezten, zure birrikak behar-beharrekoa duten gezalaz eta mendiko haize sanoaz ase daitezten...»
gibel atzetik, jarraian	«Usoa honetatik bizirik ateratzen ez bada, heu joango hatzaio gibeletik hilobira.»
gizonkari gizon-zalea	«—Beraz, emaztea eta alabaren artean, emaztea salatzen duzu gizonkaritzat, nahiz eta herri osoak Usoari erru egin. jakin ezazu, bada, aita: halakorik
gogaikarri aspergarria, astuna, nekosoa	«Biziera hau, gogaikarri eta gozakaitz ez ezik, makurgarria ere bazen Otxanda bezalako ema-kume harro, burgoi eta handinahiarentzat.»
gomitatu gonbidatu	«Beltranek, bere alaba salbu uzteko Bidaniara bidaliz, ezkontza Korrika eta presaka antolatu nahi izan zuen ezteirik eta gomitaturik gabe.»
gurutzaldi Erdiaroko "cruzada"	«Alfontso Gaztelakoak (...) Aita Sainduaren laguntza eskatu zuen. Honek, ez bat eta ez bi, gurutzaldia predikatu.»
herio heriotz pertsonifikazioa	«Zorionaren ateetara heldu zela uste zuenean, herio luze eta neketsu baten atzaparretan jausi zen.»
higuin / higuigarri nazka, enpagua	«Nik bultzatu nituen, bekaitzez, nire bi alabak eta Matxin zu higuin eta gorrota zintzaten.»
hil urren hilzorian	«—Gaixorik? Ez ote dago hil urren? Eraman nazazue bertantxe beragana —diotso emazteari aginkor.»
hitzetik hortzera bat-batean	«—Zer da hori? —bota zuen hitzetik hortzera ugazamak bere senarraren erabakiak zeharo suminduta—.»
irian inguruan	«Behinola, eguerdi irian, Beltran plaza nagusian barrena zihoalarik, Belabeltz alderatu zitzaion, bere erasoari ekiteko une egokia zela etsirik...»
izorra haurdun	«Batzuek ziotenez, Usoa oso gaixorik, ia hiltzear zegoen. Beste batzuek berriz, ugazamak ezkontzaz kanpoko izorratzeaz haurra izan ondoren, Usoarena zela



kaskar eskasa, mengela	«...itxurazko indarrak ezerez-tuak gelditzen dira arbolarik argalena edo etxerik kaskarrena jotzean eta hauek erroz ateratzeko itxurak egin arren, bere beso
koldar beldurtia, oiloa	«Hori al duk hire mendekua koldar alena? Ez ote duk azalik hire txarkeria aurrez aurre eta gizonki egiteko?»
laidokeria iraina, ofentsa, afruntua	«Halako laidokeriak Usoaren bihotzean bere erdi-odolekoenganako edo sasi-mainadarenganako gorrotoa izeki zuen...»
laidotsu iraintsua, laidogarria	«Ugazama erraigabeak hain bidegabe eta garrazki egin zion purrustada laidotsuak arras minberaturik utzi zuen Usoa dohakabea.»
larderia zakar, modu gogorrean	«Beltran eta Usoa izango zirela esan omen zion bere emazteari larderiaz.»
lerdea zeriola adurra jausten zitzaiola	«—Hori makurgarri eta lotsagarri duk guretzat! -garrasi egin zuen andre Otxandak ahotik lerdea zeriola bere amorruan—.»
likits zantarra, lizuna	«—Likitsa ez ezik, irain-egilea. Jaun Beltran gerlan zela, orain Zarauzko baserri batean haz-ten ar' diren haur bat jaio zen Alostorrean.»
loxintxa eta balaku lausengu, koipea emanez	«Orain, bizirik burutu behar nauzuelako losintxa eta palagu egin beharrean aurkitzen zarete.»
mainada taldea, multzoa, saldoa	«—Alostorreko neure mainada ezteietara ez gomitatzea. Ez nazak gizatxartat jo hau esan diadalako. Heuk badakik haiek eta ni ezin garela aurrez aurre egon.»
maizter errentan dagoena	«Zuek ere, neure maizter zareten aldetik oturuntzera gomituak gelditzen zarete. Egun horretan nire mahaikide nahi zaituztet, gure zorionaren pozkide izan gaitzaten.»
maiztu gastatutakoa, xahutua	«...erabaki batzuez jositako gudari baten jantzi zaharkitu eta maiztua azaldu zen.»
maltzur gaiztoa, faltsua	vOtxanda doilorrari, garaipenaren atseginak emandako irribarre maltzurra loratu zitzaion ezpainenat.»
mardul sendoa, gizona	«Beltran, Alostorreko jauna eta Deba aldeko beste zaldun eta Ahaide Nagusi batzuk Lasturko gurdibide bihurrietan barrena doaz, beren zaldi mardulak erabiltzen dituzte.»
marmario zurrumurru, marmarra	«Andre Otxandak, marmario artean, zizaka eta txutxuputxuka bota zion bere senarrari...»
mirabe zerbitzaria, otseina, nerabea	«—Izango ez dut, bada? Alostorreko miraberik zaharrenak eta leialenak kontaturik dakit dena. Istorio triste horren xehetasun guztiak dakizkit haren
mizto sugeen mihia	«Hitz hauek entzutean, Belabeltz bere onetik atera zen, eta suge pozoidunak miztoa sartu ohi duen antzo, hitz horietan hustu zuen bere ugazaitaganako
muzin arbuia, mespretxatu	«...haren borondatea irabazi nahiz atseginkor egiten zion diosalari muzin egiten baitzion, edo ikusi ez balu bezala, destaina zeriola, aitzina jarraitu.»
nabar koloretsu edo arrea (gris)	«Beltranek eta bere lagunak tankeratsu oihal nabarrezko zaragoil estu eta sendoak zeramatzaten belaunetaraino...»
naroki oparo, ugari	«...bertsolari ospetsuek txalotu zuten lehenik Agirre jauna bazkari hura hain naroki eman zuelako eta ezkonberriei bizi luzea eta zorionsua opaz zenbait
oldartsu suhar, sutsu, odolbero	«Jaun Beltran, odolez beroa, sutsua eta oldartsua izan arren, bihozbera, errukiorra, eskuzabala eta, batez ere, jaungoikoaren beldurpean hazitako gizona
opatu nahi izan, desiratu	«...zuzen eta giristinoki jokatu zuen, huts egin zionari barkapena opaz.»
orron erratu, errebelatu, naragabe	«...Beltranek, egun hartantxe, Debatik alde egitea erabaki zuen, nahiago baitzuen orron eta noragabe ibili, bere etxekoen aurpegiak ikusi beharra baino.»
osin putzua, leizea	«Deba izan zen, halabeharrik, Beltran Alostorrekoarentzat bere zorigaitzen iturburu.»
otu bururatu	«Behin bakarrik, ordea, lurbira honetara ekarri zuen herriaren oroimenak eraginda, bere Deba maitera sartu-irten bat egitea otu zitzaion zorigaitzoko



oturuntza bazkaria	«Zuek ere, neure maizter zareten aldetik oturuntzera gomituak gelditzen zarete.»
otzan mantsoa, apala, xumea	«Beltran jaunari, otzana zenez, goraipamen hauek, estimatu arren, ez zitzaizkion atsegin...»
sastakai labana	«—Ez! hori ez, Matxin! Gehiegi litzateke. Utz sastakai hori! Isilaraztea aski da —eta Belabeltzek obeditu zion sastakaia bere zorroan gordez.»
sesiozale parrandero	«—Aditzera dudanez ez omen da oso mutil zintzoa. Alegia, sesiozale eta zurrutari emana.»
tantai zutoina, enborra	«...hego-haize zakarrak Alostorreko tantai errotsuak biluzik jarri ditu gehientsu eta (...) honek gazteluaren zorrotzasan eta goibeltasuna nabarmenagotzen du.»
trikimailu amarrua, iruzurra	«Belabeltz izan zen lehendabizikoa jakiten, non-nahi zabaldu zituen zelatarien bitartez, beren kontra asmatu zuten trikimailu umiliagarriaren
txirtxilatu birrindu, desegin	«Ai, une hartan alboan izan balu! Lepoa bihurtu eta bertan txirtxilatu zukeen!»
ugazama amaordea, amaizuna	«—Ez beldur izan, maiteño —esan zion amoltsuki—, ez bainaiz zure ugazama gaiztoa, zure aita maitea baizik, mairuen presondegitik helduberri den zure
ukendu pomada, balsamo	«Kartzela ospel hartako goibeltasunean, bere itxaropen iturria, bere gogo oinazearen ukendua igandea ohi zen...»
xalo xehea, apala, xumea	«Usoa, Debako neskarik xaloena eta apalena bezala bizi zen; gaztelutik aterata gero egin zituen lagunak bere aldean txiro ziren, baina...»
zakar baldarra, gogorra	«Eta, egia esan, gai hauetan baraurik zegoen Basazabalgo alaba, zeren zakarra, garratza, makurra, bihotz-idorra, zitala eta bekaiztia baitzen...»
zazpi ahalak eginahalak ahaleginak	«Beltranek ere gerlarako asmoa etxekoei agertu zienean, hauek zazpi ahalak egin zituzten halako zentzugabekeria burutik haizatzeko.»
zetzan etzanda zegoen	«...bertan belarrez betetako lastaira zikin baten gainean gorputz eme bat arnasestuka zetzan...»
zirrara sentipena, emozioa	«Hau entzuteak Beltrani zirrara ikaragarria egin zion, baina bete buruaren jabe eginik, honela galdetu zion...»
zital doilorra, makurra	«—Zerbaitek esaten dit barruan nireak egin duela mundu zital honetan eta denekin bakeak eginda hil nahi nuke, gorroto zaharrak amodio bihurtuz.»
zizakatu zezeldu, musduskatu	«Alostorreko jaunak, oinazetan itorik, baina jaungoikoaren erabaki mingarriari men eginaz honela zizakatu zuen bere emaztearen hiletetan...»
ziztrin zirtzila, okerra	«Jaun Beltranek —goian bego haren arima garbia— mundu honetan okerrik egin baldin bazuen, emakume ziztrin eta likits; horrekin ezkontzean egin
zurrutari eman zurruteroa	«—Aditzera dudanez ez omen da oso mutil zintzoa. Alegia, sesiozale eta zurrutari emana.»
zurubi eskailera	«Senar-emazteak abiatu ziren zurubian gora, Belabeltz eta bi ahizpak elkarren artean zizaka eta txutxu-putxuka gelditu ziren artean.»